

## **EUGENIO RODRÍGUEZ PASCUAL FUNDAZIOA:** **IKERKETA BIOMEDIKORAKO LAGUNTZEN** **DEIALDIA 2021**

### **Helburua:**

Unibertsitate publiko edo pribatuetan edo beste ikerketa-erakunde publiko batzuetan biomedikuntzaren arloan lan egiten duten ikerketa-talde egonkorrei diru-laguntzak ematea.

### **Proiektuen iraupena:**

Proiektuek urtebeteko iraupena izango dute.

### **Finantzaketa:**

Proiektuengatik, gehienez, 25.000 euro emango dira urteko.

### **Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:**

UPV/EHUekin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.

### **Ikertaldeko kideek bete beharreko baldintzak:**

- a. UPV/EHUekin funtzionario edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.
- b. Eskaera aurkezten denean, lotura izatea Europar Batasuneko edozein herrialdetako erakunde unibertsitario edo ikerketara zuzendutako zentro publiko batekin. Pertsona horiek UPV/EHUen aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.
- a. Beste proiektu batzuen karguko obra edo kontratu zerbitzua duten ikertzaile kontratatuek **EZIN** dute parte hartu deialdi honetan.

**GARRANTZITSUA:** Ikertaldeko kideek, baldin eta laguntza gauzatu bitartean UPV/EHUekin duten lotura amaitzen bazaie, **ezin** izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

### **Aurkeztu beharreko dokumentuak:**

- a. Proiektuaren memoria.
- b. Taldekide guztien CVa.
- c. Ikertzaile nagusiaren IFZaren fotokopia.
- d. UPV/EHUko Etika Batzordearen txostena (behar izanez gero).
- e. **Ikertzaile nagusiak eta Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako gutuna proiektuaren bideragarritasuna bermatzen.**
- f. **Ikertzaile Nagusiaren erakundearen onarpen gutuna**

### **Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:**

Deialdi honek **ez** du ikertzaileen kontratazioa finantzatuko.

**UPV/EHUko ikertzaile nagusiek aurkeztutako eskaerek zehar kostuen %2a jaso beharko dute aurrekontuan nahitaez.**

**GARRANTZITSUA:** Irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nominan ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.

**Eskaerak aurkezteko azken eguna:**  
2021eko uztailaren 1eko 20:00ak arte.

**Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:**

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
Ekainaren 18a	Ikertzaile nagusia	Bidali I. Eranskina, aurrekontua eta errektoreordearen sinadura behar duten inprimakiaren orriak helbide honetara: <a href="mailto:igz.deialdiak@ehu.eus">igz.deialdiak@ehu.eus</a> Fase honetan ez da zientzi memoria osoa bidali behar.
Ekainaren 25a	Ikerketaren arloko Errektoreordetza	Bidali inprimakiak Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatuta.
Uztailaren 1a, 20:00etan	Ikertzaile nagusia	Eskaerak Fundazioan aurkezteko azken eguna. Era berean, ikertzaile nagusiak bidali beharko du eskaera osoa artxibatzeko: <a href="mailto:igz.deialdiak@ehu.eus">igz.deialdiak@ehu.eus</a> helbidera.

**GARRANTZITSUA:** Ikertzaile nagusiak aurkeztu beharko du eskaera, dagokion epean eta moduan, Fundazioaren aplikazioa erabiliz.

**UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:**

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Ordezkarri legala: Inmaculada Aorstegui Madariaga
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q4818001B
- Helbide soziala: Sarriena auzoa z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

**UPV/EHUrekiko harremana:**

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus)

**Fundazioarekiko harremana:**

- Telefonoa: 651 178 787
- E-maila: [secretaria@fundacioneugeniorodriguezpascual.es](mailto:secretaria@fundacioneugeniorodriguezpascual.es)

**Informazio gehiago:**

<https://www.fundacioneugeniorodriguezpascual.es/ayudas/>